

Maixa Lizarribarren Amak taldeak irekiko du aurten txotx denboraldia Astigarragan

Marijo - 2022-01-06



Argazkia: Sarardoren Lurraldea.

Urtarrilaren 12an irekiko da txotx denboraldia, eta aurten Amak taldeak irekiko du. Taldea Maixa Lizarribar Arrasate Txikitixa Eskolako irakasleak, Alaitz Telletxeak, Amaia Orejak eta Kris Solanok osatzen dute.

Sagardoren Lurraldeak antolatutako inaugurazioa Astigarragako Gurutzeta sagardotegian izango da. 2021ean Ander Gonzalez sukaldariak eta Gabriela Uriarte nutrizionistak ireki zuten txotx denboraldia, pandemiaren ondorioz ohi baino beranduago eta neurri bereziekin.

Marijo